

Enplegu zentroa



Mungialdeko Behargintzak, Lanbide-Enplegurako Euskal Zerbitzuaren laguntzagaz, irailetik gora hainbat zerbitzu eskaintzen deusez erabiltzaileei euren neurriko lana topatzen laguntzeko.

Arlo horretako orientabide personalizatua eta banan-banangoa emoteaz ganera, lana modu aktiboan bilatzeko prozesuak bul-tzatzen dira.

Enplegu zentroa zabaldu zanetik, iraile-tik, banan-banango 960 kontsulta atendi-du dabez zerbitzu hau kudeatzen daben orientatzaileek. Erabiltzaileek Mungiako Behargintzaren egoitzan euren eskura da-goan ordenagailuak erabili leiez lan es-kaintzak bilatzeko, Lanbideko izen-emo-tea barrizatzeko, curriculumak idazteko edo beste hainbat gauzatarako.

Akabuko hiruhilabeteko honetan 98 lan-gabeturi aplikatu jako “lan munduan txer-tatzeko ibilbidea”, eta eurotatik 24 txerta-tu dira dagoeneko lan munduan. Beste 23 euren enplegarritasuna hobetzeko pres-takuntza ekintzetan sartuta dagoz .

Zer da orientazio-ibilbidea?

Ibilbide horren helburua erabiltzaileari lana berak beratar biltzeko tresna ego-kiak eskaintzea da. Tresna horiek, besteak beste, honakoak dira: curriculum egiteko eta hobetzeko laguntza, tailer praktikoak, Interneten informazioa bilatzeko baliabideak, lanerako prestakuntzaren, presta-kuntza arautuaren eta osagarriaren ganeko orientabideak, laneko alkarrizketatarako

orientabideak, test psikoteknikoetarako entrenamendua...

45 bat lagunek hartu dabe parte Mungiako Behargintzako enplegu zentroak eskaini dituan tailerretan, azpimarratu beharrekoak dira ondoko gaien inguruan antolatutako diran tailerrak: Lanerako alkarrizketak, Gizarte trebetasunak, Lana modu aktiboan bilatzeko erak eta Gorputz-hizkuntza.

Ganera, 50 erabiltze inguruk euren curriculum egitea edo hobetzea lortu dabe.

Hurrengo tailer praktikoak:

- Urtarrilaren 9an eta 11n: Laneko alkarrizketak.
- Urtarrilaren 23an eta 25ean: Gizarte trebetasunak.

Horretaz ganera, hasita dagoan oinarriko informatika ikastaroak zezeilera bitartean jarraituko dau.



Centro de empleo

Mungialdeko Behargintza oferta diferentes servicios para ayudar a los usuarios del centro a encontrar un trabajo a su medida.

Desde septiembre, se han atendido 960 consultas por parte de las orientadoras que gestionan el servicio. Los usuarios pueden emplear los ordenadores que se encuentran a su disposición para buscar ofertas de trabajo, formación, renovación de Lanbide, redacción de curriculums, etc.

En este último trimestre se ha iniciado el itinerario de inserción con 98 personas, de las cuales 24 ya se han insertado en el mercado laboral. Otras 23 se encuentran actualmente inmersas en diferentes acciones formativas, destinadas a la mejora de su empleabilidad.

Con este servicio, el usuario dispone de unas herramientas que facilitan la elaboración y mejora del currículum, la búsqueda en Internet, la orientación en formación reglada, ocupacional o complementaria, etc.